

PIO BAROJA.—*Xanti Andiaren kezkak*. Bi liburu. Itzulpena: Yon Etxaide-Itharte. Hordago publikapenak. Donostia, 1984.

Ez du hau Etxaidek eleberri honen lehen itzulpena, 1959an Itxaropenako Kuliska sortan eman zun lehenengo aldiz *Itxaso laño dago...* (*Xanti Andia itxas-gizonaren bizitza ta kezkak*) izenburuz. Orain, lan bera izenburu jatorrera eroanaz eta lehengo itzulpena hobetuz eta oharrak gehituz eskaintzen digu.

Argitaratzaileak eleberri hontaz ematen dituen oharrak honako hauek dira: Barojaren lanei buruz hitzegiterakoan, *Xanti Andiaren kezkak* kritikoeek itsaso nobela bat bezala sailkatzen badute ere, bere muinean euskal sentimendu batetatik alderaezinezko nobela nabarritzen dugu. Itsasoaren eta Euskal Herriaren nobela bat zela hau, esan zuen bere garaian Azorinek. Ez zitzaion agian arrazoirik falta. Baina, sentimendu hori, bere konzekuentzia guziekin kristaufededun kontrabandozale eta beltz-merkataritza tarteko direla.

Yon Etxaidek, zer esanik ere ez, ohizko bere maisutasunaz itzuli duela betidanik. Sortzez euskaraz beharko genuen baina alderantziz zen. Literatura sorketerako bakoitzak bilatu behar ditu bere aukerak. Aspaldi esan genuen euskarazko eleberrigintzara jo nahi dutenek hor dutela Pio Baroja eredugarri. Hori bai, inoiz ez da berandu, ez sorketa berrietarako eta ezta holako itzulpenetarako ere. Lan eskergarria Etxaidek egin duena.

* * *